

JOLASGARAIBO ARAUAK ETA ERABILPENA

ARAU OROKORRA: ZAINDU ZURE BURUA (ezin duzu minik hartu)

ZAINDU BESTEAK (ezin da minik egin)

ZAINDU MATERIALA









ANTOLAKETA:

Ikasleak iristen diren moduan fila bat egingo dute. Ezin dira lagunak kolatu eta ezin da lagunentzat materialik hartu. Bakoitzak nahi duena eska dezake, nahi duen kopurua. Materiala nahi duen alditan aldatu dezake, baina erabilitakoa itzuli egin behar du. Jolasgaraia bukatzen denean bakoitzak atera duen materiala itzuli egin behar du.

IRAKASLEAREN ZAINZA:

- Haur batek EZETZ esaten duen momentuan (materiala lagatzea edo parte hartzeari uztea) errespetatu behar zaio. Ez da ez.
- Irakaslea KIDE SINBOLIKOA izango da, hau da, afektua emango dio haurrari eta segurtasuna bermatuko dio. Irakasleak ez du proposatuko, soilik baimenduko du. Aske eta seguru sentitu behar dira haurrak.
- UTZI EGITEN. Ahal den neurrian, haurrek beraien artean gertatutako konpontzen saiatu beharko dira, txandaka hitz eginez eta eragindako kaltea beraien ideiekin konponduaz. Adostutakoa irakasleari adierazi behar diote.
- EZ EPAITU. Zaila den arren, arazoan inplikaturako guztien bertsioak entzun eta gero, haurrak egin duena eta ez haurra bera epaitzen ikasi behar da,.

MATERIALA: Kontainer barruan soilik irakaslea sartuko da. Ikasle bakoitzak hartzen duen materiala berea izango da, ez du partekatu beharrik, soilik berak nahi baldin badu.

MATERIALEN BEREZITASUNAK		
OIHALAK eta PINTZAK	Hartutako kaxa berdinean itzuli behar dira oihalak eta jarritako pintza guztiak kendu eta gorde behar dira	
MINI-TOP	Pertsona bakarra barruan. Ikasle batek sokarekin arrastaka laguna eramaten badu, bihurguneak astiro eman behar ditu.	
SOKAK	Ezin dira inoiz lepotik lotu eta tirolinak montatuz gero, irakasleak korapiloak errebisatu beharko ditu.	
PALOTEAK	Ezin da inoiz buruan jo. Ezin da ikasle kopuru desberdintasunik egon, hau da, bi ikasle baten aurka ezin dute aritu, 3 baten aurka ez, 4 baten aurka ez... beti kopuru bera.	
ESTERILAK, MANTAK eta ALFOMBRAK	Lurra bustita dagoenean alfonbrak eta mantak ez dira ateratzen. Esterilak bai, baina berdegunetan ezin dira erabili, asfaltoan bai.	
UZTAIAK	Airean botatzen baditugu, ikaslerik ez dagoen eremuan izan beharko da eta zuhaitzetara ezin dira bota.	
HAMAKAK	Irakasleek jarriko ditu edo gutxienez ondo jarritan dauden begiratuko du. Gehienez 2 pertsona egon daitezke barruan eta kanpoko lagunak POLIKI bultza behar dute, ezin da kulunka handirik egin.	
GURPILAK	Ezin dira maldan behera jendea dagoen tokira bota.	
FRUTA KAXAK	Barruan gehienez pertsona bat, eta arrastaka eramanez gero ezin da barruan zutik joan.	